



Alemaniko Lucy Software etxeak Euskadiko Emergiatech, UZEI eta Gizartebitek-ekin elkarlanean irabazi du kontratua

## Eusko Jaurlaritzak bultzatuta gaztelania-euskara itzultzaile automatikoa gauzatua hamabost hilabete barru

Patxi Baztarrika: *Aukera berri bat sortu eta beste bide bat gehiago ireki diogu euskarari, hizkuntza erabilia izateko.*

Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak abian jarri du gaztelania-euskara itzultzaile automatikoa, hamabost hilabete barru, testu orokor ez-espezializatuak itzuliko dituen espainiera-euskara itzulpen automatikoko tresna errealitatea izango da, horretara iristeko Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak lehiaketa publikoa egin du arloko enpresen artean eta kontratua Lucy Software enpresari adjudikatu zaio. Kontratua burutzeko itzulpen automatikoan espezializatutako Alemaniko Lucy software etxeak Euskal Herriko hiru enpresarekin lan egingo du, hain zuzen ere Emergiatech, UZEI eta Gizerbitek enpresekin. Eusko Jaurlaritzak 395.000 euro inbertituko ditu egitasmoa hau gauzatzeko eta honen barruan, erreminta hornitzea, ezartzea eta hasierako mantentzea sartzen dira.

Patxi Baztarrika, Hizkuntza Politikarako Sailburuordeak itzultzaile automatikoaren aurkezpenean tresna honek eta oro har informazio eta komunikazio teknologiek (IKT) euskararentzat duten garrantzia azpimarratu nahi izan du. Bere hitzetan, *denbora asko baino lehen, teknologiak izango dira, herri garatu eta ez garatuak ez ezik, hizkuntza garatu eta ez garatuak ere bereiztuko dituztenak. Euskarak beste hizkuntzen artean, hizkuntza garatuen artean, leku egokia aurkitu eta sendotuko badu, garai berriko teknologia hauekz baliatzen den neurrian bakarrik aurkituko du. Ez gaude geldirik, ondo goaz, aurrerantz goaz argi eta garbi. Gaur egun euskarak hizkuntza teknologien tresnerian duen presentzia euskal biztunen kopuruak munduko biztanleen artean duen pisuaren arabera legokioketena baino askoz altuagoa da. Nolanahi ere, euskararen tokia beti izango da txikia sare horietan, ez dezagun garenaren neurria ahantzi. Kontua da aukera guztiak baliatzeko gai izan behar dugula, abal dugun neurririk handienera.*

Hizkuntza Politikarako Sailburuordeak emandako aurrera pausua azaldu eta teknologia hauen garapenean eta aukera hauen erabileran jarri du gakoa, *Eusko Jaurlaritzak egin du egin beharrekoa, beste aukera berri bat gehiago sortu euskara erabiltzeko, euskara hizkuntza modernoa izateko, teknologiak euskararen zerbitzuan jartzeko, euskarak beste edozein hizkuntza modernok dauzkan tresnetariko bat (itzultzaile automatikoa) edukitzea. Aukera berri bat sortu eta beste bide bat gehiago ireki diogu euskarari, hizkuntza erabilia izateko. Herritarrei dagokie aukera horiek baliatzea, aukera horiek erabiltzea. Orain dagoeneko tresna teknologiko asko daude euskaraz; horiek erabiltzera animatu nahi ditut herritarrak. Urte eta erdi barru itzultzaile automatikoa izango da. Erabiltzeko aukerak sortu eta erabiltzeko aukerak baliatu: bi hanka horien gainean egin dezake aurrerantzerako bidea euskarak. Hori geure esku dago.*

**Prentsa oharra**

**Nota de Prensa**

1

**2008-07-24**



Euskara informazio eta komunikazio teknologietan egoki txertatzeko, Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak 4.740.723 euro inbertitu ditu azken hiru urte hauetan (2006, 2007, 2008), horietatik 3.990.723 euro IKT deialdiaren barruan eta beste 1.450.000 euro tresnak, lanabesak, software-lokalizazioak eta antzeko egitasmoak bideratzeko.

Eusko Jaurlaritzak bultzatutako lehen itzultzailea hiru modutara erabiliko da: Interneten testu laburrak itzultzeko, webguneak itzultzeko, hau da web gune baten edukiak itzultzeko, eta Jaurlaritzako intranetaren bidez, testu luzeagoak itzultzeko; azken horiek giza zuzenketa izango dute eta, horrela, sistema elikatzeko erabiliko dira. Gaztelania-euskara itzultzeko erreminta hau lehen pausua izango da, ostean bestelako garapenekin jarraitzeko: euskara-gaztelania, euskara-ingelera, ingelera-euskara, euskara-frantsesa, frantsesa-euskara, eta abar.

Itzulpen automatikoa euskarak behar duen garapen teknologiko garrantzitsua da eta, hori dela eta bai *Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia* bai Euskadi Informazioaren Gizartean Planean jasotako arloa da. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak urteak daramatza lanean hori garatze aldera. Prozesu luzea izan da Eusko Jaurlaritzarentzat itzultzaile automatikoaren proiektua abian jarri arte. Izan ere, proiektua asko landu behar izan da, gure hizkuntzaren garapen-maila, hizkuntza handiekin konparatuz gero, askoz ere apalagoa delako.

Itzultzaile tresna garatzeari zuzendutako lehiaketan, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak proposatutako itzulpen-eredua, aurreikusten den itzulpenaren kalitatea, sistemaren arkitektura, proiektuan erabiliko diren hizkuntza-baliabideak, sistema kudeatzeko eta mantentzeko erabiliko diren erremintak, prestakuntza, ezagutzaren transferentzia eta aurkeztuko duten dokumentazio teknikoak; eta, lantaldearen antolaketa aztertu ditu eta horren ondoren aipatutako egitasmoari eman zaio kontratua.

Kontuan izanda, Eusko Jaurlaritzak lortu nahi duen tresna testu orokor ez-espezializatuak itzultzeko dela, eta kontuan izanda, itzulpen-memoretan oinarritzeko sistema eraikitzeko nahiz eredu estatistikoak aplikatzeko, euskaraz corpus handia beharko litzatekeela eta, oraingoz, corpus hori mugatua eta murriztua dela, aukeratu den eredua da arauetan eta transferentzian oinarrituta emaitza hobeak emango dituen. Izan ere, asko baloratu da oinarritzko hizkuntzaren, hau da gaztelaniaren, analisi indartsua duen sistema izatea. Ezaugarri horiek ematen dituen teknologia Lucy Software enpresarena da. Gainera, sistemak itzulpen-memoriak kudeatzeko motorea ere badu integratuta, beraz corpora handitzeaz eta hobetzeaz batera baliabide hori ere erabili ahal izango da.

## Lucy Software, Emergiatech, UZEI, Gizerbitek

**Lucy Software** itzulpen automatikoa lantzen duen eta itzulpen automatikoaren zerbitzuak ematen dituen Alemaniako enpresa da. Bere filiala (%100ean) Bartzelonan dagoen **Translendum S. L.** enpresa da. Euskarazko itzultzailearen garapenean Euskal Herriko hiru enpresak ere parte hartuko dute:



- **Emergiatech:** Deustuko Unibertsitateko DELi Taldearen spin-offa da; ingeniartza linguistikoa oinarritutako informazioaren prozesamendu adimentsua da bere lan-esparrua.

- **UZEI:** Terminologia eta Lexikografia Zentroa da. EUSKALTERM Terminologia Banku Publikoa eguneratzen du. Euskarazko corpusak eta hiztegi lexikografikoak egin ditu. Euskaraz dauden hiztegi terminologiko gehienak egin ditu.

- **Gizerbitek:** enpresa teknologikoa; garapen informatikoak egiten ditu.

Lucy Software eta bere filiala den Translendum enpresaren teknologiak urteak daramatza merkatuan oso emaitza onak ematen. Hainbat itzultzaile garatu dute:

|            |   |                                                               |
|------------|---|---------------------------------------------------------------|
| Katalana   | → | ingeleza, espainiera, frantsesa                               |
| Ingelesa   | → | alemana, katalana, espainiera, frantsesa, errusiera, italiera |
| Alemana    | → | ingeleza, espainiera, frantsesa, errusiera                    |
| Espainiera | → | alemana, ingeleza, katalana, frantsesa                        |
| Frantsesa  | → | alemana, ingeleza, espainiera, katalana                       |
| Errusiera  | → | alemana, ingeleza                                             |

Kataluniako Generalitatea eta Galiziako Xunta Translendum enpresaren bezeroak dira, hau da ezarrita dituzte bere itzultzaileak. Beste administrazio publiko askok ere erabiltzen dute Translendum. Teknologia horrekin ere itzultzen da El Segre Lleidako egunkaria, eta teknologia horren beste erabiltzaile garrantzitsu bat da “Agencia Catalana de Noticias”.

## Itzulpen automatikoko tresna garatzeko Eusko Jaurlaritzak egindako bidea

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak urteak daramatza euskararentzat estrategikoa den itzulpen automatikoa garatze aldera, hortaz, garapen teknologiko hau gauzatzeko, harremanetan jarri zen teknologia hori duten hainbat enpresarekin, hain zuzen ere euskara beren teknologian integratzeko interesa erakutsi zuten enpresekin, eta bakoitzak bere teknologiaren inguruko txosten teknikoa eta bertan euskara integratzeko bideragarritasuna lantzeko eskatu zien.

Horretaz gain, demo praktikoa egiteko ere eskatu zien. Hori egiteagatik enpresa bakoitzak 10.000 euro gehi BEZa jaso zituen. Hauek izan ziren itzulpen automatikoaren arte-egoera ezagutzeko landu zen fasean parte hartu zuten enpresak:

- AutomaticTrans (Katalunia)
- Eleka Ingeniaritza Linguistikoa (Euskadi)
- Emergiatech (Euskadi)
- Incyta (Katalunia)
- Interlan System (Euskadi)



Aipatutako enpresekin izandako saioetatik lortutako informazioa baloratzeko eta ebaluatzeko Kultura Saileko Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak batzorde bat antolatu zuen Administrazioako kideez eta kanpoko adituez osatua. Saio horietan ikusitakoa eta ikasitakoa, eta batzordeak osatutako txostena izan ziren, geroxeago, itzultzailea kontratatze HPSk prestatu zuen baldintza teknikoen pleguaren oinarri. Horrela, 2008ko urtarrilaren 4an, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen testu orokor ez-espezializatuak itzuliko zituen espainiera-euskara itzulpen automatikoko tresna bat kontratatze lehiaketa publikoa. Kontratuaren barruan erreminta hornitzea, ezartzea eta hasierako mantentzea sartzen ziren.

Kontratuko betekizunei erantzuteko lau eskaintza jaso ziren, honako enpresa hauenak:

- AutomaticTrans (Katalunia)
- Lucy Software (Alemania-Katalunia)
- SHS Polar (Madril)
- UTE Zelai Haundi (Euskadi)

Eskaintzen balorazioa egin du Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak EJI Eren laguntzaz, pleguak finkatutako irizpideei jarraituta eta arestian aipatutako emaitzarekin.

### **Patxi Baztarrika: *Erabiltzeko aukerak sortu eta erabiltzeko aukerak baliatu, bi hanka horien gainean egin dezake aurrerentzako bidea euskarak***

*Denbora asko baino lehen, teknologiak izango dira, berri garatu eta ez garatuak ez ezik, hizkuntza garatu eta ez garatuak ere bereiztuko dituztenak. Euskarak beste hizkuntzen artean, hizkuntza garatuen artean, leku egokia aurkitu eta sendotuko badu, garai berriko teknologia hauetaz baliatzen den neurrian bakarrik aurkituko du.*

*Globalizazioa euskaldunontzat ez da mehatxu bat, errealitate bat baizik, erronka bat. Eta mundu berri honetan, aukera gisa ulertu, onartu eta geureganatu behar ditugu IKTak. Euskararen primerako aliatuak izan litezke teknologia horiek, baldin eta etxeko lanak taxuz egiten baditugu. Teknologia horiek bikain baliatzen baditugu, irabazteko asko dauka euskarak, gaitzekorik ez. Eta horretan asmatzea da gure helburua. Izan ere, hain indartsuak diren beste hizkuntza ugarien artean, babesa behar baitu euskarak, babesa zor diogu euskarari, babesa emateko eta indartzeko baliatu behar ditugu teknologia hauek irekitzen dizkiguten aukera berriak.*

*IKTak, sarea, Internet: horiek osatzen dutena da giltzarria. Dinamika horretatik kanpora geratzen den guztia guztiz marjinala izatera deitua dago. Edo –okerrago oraindik- desagertzera kondenatua. Horregatik daukate berebiziko garrantzia euskararen presentziak sarea eta hizkuntzen teknologiak euskararako baliatzeak. Berebiziko garrantzia daukate, ez hor ere egotea komenigarria delako, ez, hor/horietan egon gabe euskara arnasarik eta etorkizunik gabe geldituko litzatekeelako baizik.*

*Euskarak etorkizun sendoa irabazten jarraituko badu, behar-beharrezkoa da, ezinbestekoa, euskara han eta*



*hemen, honetan eta hartan, erabiltzeko aukerak sortzea; baina aukerak sortzea bezain beharrezkoa edo are beharrezkoagoa da, jadanik eskura ditugun aukerak baliatzea. Eta asko dira eskura ditugun aukerak. Tresna asko ditugu dagoeneko: hiztegiak, banku terminologikoa, zuzentzaile ortografikoa, hainbat eremutan erabiltzeko aplikazioak... Euskararekin dugun erronka berbera dugu, ordea, euskarazko baliabide teknologikoekin: tresnak izatetik (edo edukitzetik), tresnak erabiltzera pasatzea. Euskaldun gehienek eskura dauzkaten tresna asko erabiltzeko urrats kualitatiboa emateke daukate oraindik: dela obitura faltagatik, dela tresna haiek euskaraz ere badirela ez dakitelako, edo dena delakoagatik.*

*Ez gaude geld, ondo goaz, aurrerantz goaz argi eta garbi. Gaur egun euskarak hizkuntz teknologien tresnerian duen presentzia euskal biztunen kopuruak munduko biztanleen artean duen pisuaren arabera legokioketena baino askoz altuagoa da. Nolanahi ere, euskararen tokia beti izango da txikia sare horietan, ez dezagun garenaren neurria ahantzi. Kontua da aukera guztiak baliatzeko gai izan behar dugula, ahal dugun neurririk handienez.*

*Eusko Jaurlaritzak egin du egin beharrezkoa, beste aukera berri bat gehiago sortu euskara erabiltzeko, euskara hizkuntza modernoa izateko, teknologiak euskararen zerbitzuan jartzeko, euskarak beste ezein hizkuntza modernok daukan tresnetariko bat (itzultzaile automatikoa) edukitzeko. Aukera berri bat sortu eta beste bide bat gehiago ireki diogu euskarari, hizkuntza erabilia izateko. Herritarrei dagokie aukera horiek baliatzea, aukera horiek erabiltzea. Orain dagoeneko tresna teknologiko asko daude euskaraz: horiek erabiltzera animatu nahi ditut herritarrek. Urte eta erdi barru itzultzaile automatikoa izango da. Erabiltzeko aukerak sortu eta erabiltzeko aukerak baliatu: bi hanka horien gainean egin dezake aurrerantzerako bidea euskarak. Hori geure esku dago.*

*Informazio eta Komunikazio Teknologien esparruak euskararen normalizaziorako duen garrantziaz jabetuta dago Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. Horregatik bideratzen ditu urtez urte gero eta dirulaguntza zabalagoak esparru honetarako, eta horregatik sustatzen ditu urtero euskarazko tresna eta aplikazio berriak, gero herritarren eskura jartzeko: hiztegiak on line (elebakarrak: Euskal hiztegia, Harluxet hiztegi entziklopedikoa; eta hiztegi elbidunak: Elhuyar hiztegia, 3000 hiztegia, Morris hiztegia); EUSKALTERM Terminologia Banku Publikoa; Xuxen zuzentzaile ortografikoaren bertsio guztiak (Microsoft Office-rako, OpenOffice.org-erako, Mac Word-erako, Mac QuarkXPress-erako); hiztegien pluginak (Elhuyar hiztegienak, UZEIren sinonimoena, OCRa, hitz-zatitzailea); sistema eragileak (Windows eta Linux); ofimatika-paketeak (Microsoft Office eta OpenOffice.org); enpresa-kudeaketarako aplikazioak (SAPen 5 modulu, PRISMA), esparru sozio-ekonomikorako lanabesak (BDP Tátil izeneko softwarea), Miatu web liburutegia eta abar. Horiek guztiak [www.euskadi.net/euskara\\_soft](http://www.euskadi.net/euskara_soft) gunean eskuragarri daude. Eta IKT eremuaren inguruko informazioa biltzeko eta eskaintzeko ere egin zuen HPSk **Euskarazko Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien Inbentarioa** ([www.euskara.euskadi.net/ikt\\_inbentarioa](http://www.euskara.euskadi.net/ikt_inbentarioa)).*

*Kopurutan azalduz gero, hauek dira azken hiru urteotan (2006, 2007, 2008) IKTak sustatzeko Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak inbertitu dituenak:*

|                                                                      |                |
|----------------------------------------------------------------------|----------------|
| DIRU-LAGUNTZAK (IKT deialdien barruan)                               | 3.540.723 euro |
| Bestelako proiektuak (tresnak, lanabesak, software-lokalizazioak...) | 1.450.000 euro |



*Itzulpen automatikoa, esan bezala, euskarak behar duen garapen teknologiko garrantzitsua da eta, hori dela eta bai Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia bai Euskadi Informazioaren Gizartean Planean jasotako arloa da.*

*Prozesu luzea izan da Eusko Jaurlaritzarentzat itzultzaile automatikoaren proiektua abian jarri arte. Izan ere, proiektua asko landu behar izan dugu, gure hizkuntzaren garapen-maila, hizkuntza handiekin konparatuz gero, askoz ere apalagoa delako.*

*Hortaz, euskararako itzultzaile automatikoa garatzeari begira, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak metodologia bat jarraitu du eta horren emaitza, beraz hamabost hilabete barru izango dugu eskuartean: lehenengo itzultzaile automatikoa izango dugu gaztelaniatik euskara itzuliko duena. Bidea zabalik da!*

Donostia, 2008ko uztailaren 24a